

SORGINXULO LESAKAKO KULTUR-BILGUNEA

16. BILERA AKTA

EGUNA: ABENDUAK 12, LARUNBATA

ORDUA: 9:30

TOKIA: HARRIONDOA KULTUR ETXEA – ZUMARRA GELA

BERTARATUAK

GURE ARRANO ELKARTEA
OTXOGORRIENEA GURASO ELKARTEA TANTIRUMAIRU IKASTOLA
BORTZIRIETAKO BERTSO ESKOLA
IRAIN GURASO ELKARTEA
GEROA BAI UDAL TALDEA
TANTIRUMAIRU EUSKAL FOLKLORE TALDEA
LESAKAKO EUSKARA BATZORDEA
S.C.R.D. BETI-GAZTE K.J.K.E.
LESAKAKO ABESBATZA
GILTZARRI ABESBATZA
LESAKAKO MUSIKA BANDA
LESAKAKO SOINULARIAK
ELUTXA TXARANGA

AINZINAKO AKTA ONARTZEA

Onartzen da

LIBURU XURIA

Larrabetzukoa eta Elgoibarkoak erakusten dira, bi adibide oso desberdinak.

Zuzentzaileak bere mahai gainean du Liburu Xurian sartu beharreko informazio guztia eta uste da urtarrila aldera zuzendua izanen duela.

2020an bazen 2.000 euroko aurrekontua Liburu Xurirako eta hurrengo urtean ere partida izanen da. Norbaiti erranen zaio polita jartzeko.

Formatoa orrien arabera erabakiko da.

Dokumentuaren zirriborroa erakusten da. Norbaitek argazkiren bat gehiago, logoa... sartu nahi badu oraindik egiten ahal da. Badirudi luzera aldetik baten bat gehiegi luzatu dela, erreparatuko da.

Sarrera bat e do egin beharko zaio, aurkezpena, nondik norakoa... eta bukarean ohiturei buruzko zerbait ere, urteko agenda...

DIRULAGUNTZAK

Eskaerak jaso dira eta aurreko urtearekin alderatuz ez da desberdintasun gehigi ikusten, zerbait gehiago eskatu da, nahiko antzekoa dirudi hasiera batean. Gauza batzuk 2020koak dira, apirila arte eginen direnak, beraz hori 2021eko pastelatik kenduko da. Urtarrileko bileran behar bada 2021eko aurrekontuez zerbait hitz egin ahal izanen da.

Gogoratzen da 2020ko justifikazioak abenduaren 20rako aurkeztu behar direla.

HARRIONDOA KULTUR ETXEKO ARAUDIA

Udala hasi da, bino ez du gehiegi aurreratu, ez da ailegatu. Aurten lanketa hau egin nahi zen bino ezin. Behar bada egokiena udalak proposamen bat egitea eta hori aztertzea aipatzen da.

AGENDA-EGUBERRIAK

Abenduko agenda erakusten da, ze ekitaldi izan diren eta izanen diren aipatzen da.

Urtarrila hasieran haurrentzat zerbait jartzea aurreikusten da, udalak erabakiko du.

ETS taldeari konsulta egin dela aipatzen da, apirila aldera etortzeko proposamena egitea adosten da (apirilak 10 adibidez).

2021eko agenda ez dago gehiegi egina, proposamen pila dago bino ez dago zehaztua.

Proposamenak konsulta egiteko:

Esti Markez – Udako Zikloa / Harriondoa???

Ainara Ortega – Udako Zikloa

Gorria – Miren Amuriza

Eguberrien inguruan udalak ikastetxeekin aztertutako aukera azaltzen du. Osasun sailara idatzi da, beharrezkoa ikusten badute, baimena emateko. Momentuz erantzunik ez dago.

Sorginxuloko kideekin wasap talde bat egitea proposatzen da.